

Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak datorren asteburuan hiru bapore-tren martxan jarriko ditu

- **Ostiral honetan, uztailaren 1ean, Azpeitian (Gipuzkoa) Museoako instalazioetan udako ordutegia indarrean sartuko da**

Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak (Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa) datorren asteburuan hiru bapore-tren martxan jarriko ditu.

Bapore-trenek honako irteera-ordutegi hau izango dute, Museotik (Azpeitia) Lasarantz:

- **Uztailak 2, larunbata**: 12:00etan eta 17:30ean.
- **Uztailak 3, igandea**: 12:00etan.

Udako ordutegia Museoan uztailaren 1etik aurrera (ostirala)

Datorren ostiralean, uztailaren 1ean, Museoako instalazioetan udako ordutegia indarrean sartuko da. Honako hau izango da ordutegia:

- Astartetik larunbatera: 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era.
- Igande eta jai-egunetan (astelehena izan ezik): 10:30etik 14:00etara.

Burdinbidearen Euskal Museoak bere instalazioetan Europako trenbide bildumarik hoberenak erakusten ditu, mota guztietako ibilgailuekin: lurrun, diesel eta elektrikoak diren tren-makinak; automotoreak eta bagoi mota desberdinak.

Horrez gain, Euskadiko makina-erreminta multzo osoenetakoa eskaintzen du, Urolako Trenbidearen tailer mekanikoa izandakoaren bitartez, eta XIX. mendearen amaieratik trenetan erabilitako uniformeen erakusketa bikaina eta mundu osoko tren arloko erloju bilduma hoberenetakoa dauzka.

Jendearentzako informazioa

- Burdinbidearen Euskal Museoaren helbidea: Julián Elorza kalea, 8 (20730 AZPEITIA-GIPUZKOA).
- Informazio-telefonoa: 943 15 06 77
- Faxe: 943 15 07 46
- Helbide elektronikoa: museoa@euskotren.eus
- Webgunea: www.euskotren.eus

Igortze-data: 2022ko ekainaren 29a, asteazkena